# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### Zk-4172

330/1999 DEKRETUA, irailaren 21ekoa, beste herrialde batzuetan indarrean dauden hezkuntza-sistemak oinarritzat hartuta, Espainiako estatuko tituluekin homologatu ezineko unibertsitate-mailako ikasketak ematen dituzten ikastegien eraketa eta jarduna baimentzeko prozedurak eta baldintzak arautzen dituena.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuko 16. artikuluari jarraiki, Autonomia Erkidego honi dagokio hezkuntza-alorreko eskuduntza osoa, «bere hedadura osoan eta maila, modalitate eta espezialitate guztietan». Eskuduntza hori Konstituzioko 149.1.30. artikuluan finkatutako mugen barruan gauzatzekoa da.

Eskuduntza-esparru honen barruan, apirilaren 12ko 557/1991 Errege Dekretuan, unibertsitateen eta unibertsitate-ikastegien eraketa eta onarpenari buruzkoa, beste herrialde batzuetan indarrean dauden hezkuntza-sistemen araberako unibertsitate-mailako ikasketak eman nahi dituzten ikastegiak eratzeko oinarrizko baldintzak zehaztu ziren, beste zenbait alderdirekin batera. Honela, ikastegi horiek eratzeko bete beharreko gutxieneko baldintzak finkatzen dira dekretu horretan. Baldintza horiek, eman nahi diren ikasketen araberakoak dira, hau da, gure unibertsitate-sisteman homologatu daitezkeen ikasketak diren ala ez diren arabera. Zehazkiago, 19.1. artikuluan hau dio: Espainiako estatuan unibertsitate-mailako ikastegiak eratu nahi izanez gero, edozein modalitatetako ikasketak emateko direla ere, beste herrialde batzuetan indarrean dauden hezkuntza-sistemak oinarritzat hartuta, Espainiako tituluekin homologatu ezineko titulazioa ematen dutenak, ikastegi horiek baimentzekotan, administrazio eskudunak erabakitakoarekin bat etorri beharko dute.

557/1991 Errege Dekretuan finkatutako xedapenak garatzeko, Agindu bat eman zuen Hezkuntza Ministerioak 1993ko maiatzaren 26an, Estatuko Administrazio Nagusiaren eskumeneko Unibertsitate Publikoei ikastegiak atxikitzeari eta Administrazio horren eskumenekoak diren atzerriko ikastetxeak baimentzeari buruzkoa. Agindu horretan, Estatuko Administrazio Orokorraren eskumeneko lurralde-eremuan, beste herrialde batzuetan indarrean dauden hezkuntza-sistemen araberako unibertsitate-mailako ikasketak eman nahi dituzten unibertsitateko ikastegien eraketa eta jarduna baimentzeko prozedurak araupetzen dira. Errege Dekre-

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### N°-4172

DECRETO 330/1999, de 21 de septiembre, por el que se regula el procedimiento y las condiciones de autorización para el establecimiento y el funcionamiento de centros que impartan enseñanzas de nivel universitario conforme a sistemas educativos vigentes en otros países, no conducentes a la obtención de títulos homologables a los españoles.

El artículo 16 del Estatuto de Autonomía del País Vasco establece que corresponde a la Comunidad Autónoma la competencia en materia educativa «en toda su extensión, niveles y grados, modalidades y especialidades»; competencia que se despliega dentro de los límites establecidos en el art. 149.1.30.ª de la Constitución.

Dentro de este marco competencial, el Real Decreto 557/1991, de 12 de abril, sobre creación y reconocimiento de Universidades y Centros universitarios, procedió a establecer, entre otras cuestiones, las normas básicas en relación con el procedimiento de autorización para el establecimiento de Centros que pretendan impartir enseñanzas de nivel universitario conforme a sistemas educativos vigentes en otros países. En este sentido, establece diferentes requisitos mínimos que deberán concurrir en los referidos Centros, según la modalidad de estudios que pretendan impartir, es decir, según se trate, o no, de estudios homologables académicamente a los títulos oficiales vigentes en nuestro sistema universitario. En concreto, dispone su artículo 19.1 que el establecimiento en España de Centros extranjeros para impartir enseñanzas de nivel universitario, sea cual fuere su modalidad de enseñanza, conforme a sistemas educativos vigentes en otros países, no conducentes a la obtención de títulos homologables a los españoles, se ajustará a lo que disponga la Administración competente al autorizarlos.

En desarrollo de las disposiciones establecidas en el Real Decreto 557/1991, se dictó Orden de 26 de mayo de 1993, del Ministerio de Educación, relativa a la Adscripción de Centros a Universidades Públicas de competencia de la Administración General del Estado y Autorización de los Centros Extranjeros que son competencia de la misma, en el que, entre otras cuestiones, se regula el procedimiento de autorización del establecimiento y desarrollo de actividades de los Centros Universitarios que pretenden ofertar enseñanzas de nivel universitario conforme a sistemas educativos vigentes en otros países en el ámbito territorial que sea de la

tu hartan jasotako oinarrizko xedapenak Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoak izango ziren, gure Erkidegoan berezko araudirik garatzen ez zen bitartean.

Horixe aipatzen zuen ekainaren 29ko 19/1998 Legeko hirugarren xedapen osagarriak, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitate Antolamenduari buruzkoa. Xedapen horretako lau ataletan, atzerriko unibertsitateetan homologatu daitezkeen ikasketak ematen dituzten ikastegi pribatuen ezarpena baimentzeko erregimena jasotzen da batetik, eta ikastegi horiek zabaltzeko finkatutako betekizunak urratuz gero, ezarri beharreko zigorrak, bestetik. Lege hau, Estatuko legedian atzerriko ikastegiak ezartzeari buruz xedatutakoari lotzen zitzaion, eta hala, beharrezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoak esparru horretan duen eskuduntza behar bezala itzultzen duen araudi bat garatzea.

Azken urteotan, nabarmen ugaritu dira honelako ikastegiak Euskal Autonomia Erkidegoan, hau da, beste herrialde batzuetan indarrean dauden hezkuntza-sistemak oinarritzat hartuta, Espainiako tituluekin homologatu daitezkeen titulazioak lortzera bideratzen ez diren unibertsitate-mailako ikasketak ematen dituzten ikastegiak, eta horren ondorioz, beharrezkoa da ikastegi horiek Euskal Autonomia Erkidegoan eratu eta ikasketak eskaini ahal izateko baimenak emateko prozedura eta baimen horien baldintzak arautzen dituen, eta jarduera horien garapena gainbegiratu eta ikuskatzen duen araudia ematea.

Honenbestez, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenari jarraiki, Unibertsitateko Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluaren aldeko txostena irakurri ondoren, Eusko Jaurlaritzaren Aholku Batzorde Juridikoarekin bat, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1999ko irailaren 21ean egindako bileran horren gainean eztabaidatu eta erabaki ondoren,

XEDATZEN DUT:

*1. artikulua.*– Ezarpen-esparrua.

Beste herrialde batzuetan indarrean dauden hezkuntza-sistemak oinarritzat hartuta, Espainiako tituluekin homologatu ezin diren titulazioak lortzera bideratutako unibertsitate-mailako ikasketak ematen dituzten ikastegiak, edozein modalitatekoak direla ere, Euskal Autonomia Erkidegoan eratu eta jardun ahal izateko, dekretu honetan xedatutakoarekin bat etorri beharko dute. Dekretu hau, ekainaren 29ko 19/1998 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitate Antolamenduari buruzkoa, aurreikusitakoa batetik, eta, bestetik, Estatuak auzi honi buruz finkatutako oinarrizko araudietan finkatutakoa, apirilaren 12ko 557/1991 Errege Dekretuan jasoa, Unibertsitateen eta Unibertsitate Ikastegien eraketa eta onarpenari buruzkoa, garatzeko emana da.

competencia de la Administración General del Estado, de aplicación supletoria en la Comunidad Autónoma del País Vasco en tanto no se desarrollaran, a través de normativa propia, las disposiciones básicas contenidas en aquel Real Decreto.

A ello hacía referencia la Disposición Adicional tercera de la Ley 19/1998, de 29 de junio, de Ordenación Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que contempla en sus cuatro apartados el régimen de autorización de la implantación de centros privados que impartan enseñanzas homologables por Universidades extranjeras, así como el régimen sancionatorio en supuestos de infracción de los requisitos que se establecen. Dicha previsión legal se remitía, en cualquier caso, a lo dispuesto para el establecimiento de centros extranjeros en la legislación estatal, por lo que se hace necesario un desarrollo reglamentario que traduzca efectivamente la competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco en dicho ámbito.

En los últimos años, en la Comunidad Autónoma del País Vasco, se ha producido un considerable incremento de la pretensión de desarrollar actividades por Centros cuyo objetivo es ofertar enseñanzas de nivel universitario de acuerdo a sistemas educativos vigentes en otros países, no conducentes a la obtención de títulos homologables a los españoles, lo que hace necesario dictar la normativa reglamentaria que regule tanto el procedimiento de autorización de establecimiento y oferta de enseñanzas en la Comunidad Autónoma del País Vasco por parte de esos Centros y las condiciones de dicha autorización, así como la supervisión e inspección del desarrollo de sus actividades.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, visto el informe favorable del Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria y de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 21 de septiembre de 1999

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Ambito de aplicación.

El establecimiento y funcionamiento en la Comunidad Autónoma del País Vasco de Centros que pretendan impartir enseñanzas de nivel universitario de acuerdo a sistemas educativos vigentes en otros países, no conducentes a la obtención de títulos homologables a los españoles, cualquiera que sea su modalidad, se someterá a lo dispuesto en el presente Decreto, que se dicta en desarrollo de lo previsto en la Ley 19/1998, de 29 de junio, de Ordenación Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como de la normativa básica del Estado en la materia, contenida en el Real Decreto 557/1991, de 12 de abril, sobre creación y reconocimiento de Universidades y Centros Universitarios.

*2. artikulua.–* Baimena emateko prozedura.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoan aurreko artikuluan zehaztutako ikastegiak eratu eta jardun ahal izateko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren baimena eskuratu beharko dute aurretik. Baimen hori agindu baten bidez emango da, Espainiako estatuak sinatutako nazioarteko Hitzarmen eta Itunetan jasotako aurreikuspenen kaltetan izan gabe, betiere.

2.– Baimena emateko espedientea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera igorritako eskari baten bidez hasiko da. Eskari hori ikastegiko titularrak aurkeztu beharko du Sail horretako erregistro nagusian, edo Hezkuntza Saileko lurralde-ordezkaritzaren batean, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38. artikuluan aurreikusitako bitartekoren bat erabiliz. Eskabide horretan, eman nahi diren ikasketak eratu eta burutzeko baimena eskatuko da.

3.– Baimena eman ahal izateko Kanpo Arazoetarako Ministerioaren txosten bat jaso beharko da aurrena. Txosten horretan baimen hori emateko egokitasunaren berri eman beharko du Ministerioak, ezar daitezkeen nazioarteko Itun edo Hitzarmenak oinarritzat hartuta, edo halakorik ezean, elkarrekikotasun-printzipioan oinarrituz.

4.– Baimena eman edo ukatzeko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko organo eskudunak txosten arrazoitu bat aurkeztu beharko du.

5.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak emango edo ukatuko du ikastegia eratzeko eta jarduteko baimena, agindu baten bidez. Agindu horretan, baimena emateko baldintzak, ikastegiko titularrak bere gain hartzen dituen betebeharrak eta baimendutako ikasketak emateko betekizunak zehaztuko dira.

6.– Baimena emateko espedientea, eskaera aurkeztu eta gehienez ere sei hilabeteko epean erabaki beharko da, eta epe horren barruan jakinarazi beharko da hartutako ebazpena.

7.– Honelako ikastegiak eratu eta jarduteko baimena eskuratzeko eskabidean, dekretu honetan finkatutako datu eta agiri guztiak jasoko ez balira, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikastegiaren titularrarengana edo haren izenean eskaera-prozedura egin duen pertsonarengana joko luke, hamar egunekoa baino laburragoa ez den epearen buruan eskabideak dituen hutsak konpondu ditzan. Bitarte horretan etenda gelditubo da ebazpena hartzeko finkatutako epea. Titularrak, edo haren izenean espedientea hasi duen pertsonak, adierazitako hutsak osatuko ez balitu, ukatu egingo litzaioke eskatutako baimena.

*Artículo 2.–* Procedimiento de autorización.

1.– El establecimiento y funcionamiento en la Comunidad Autónoma del País Vasco de los Centros precisados en el artículo anterior, y sin perjuicio de las previsiones contenidas en los Tratados o Convenios internacionales suscritos por España, requerirá la previa autorización, mediante Orden, por parte del Consejero de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco.

2.– El expediente de autorización se iniciará mediante instancia dirigida al Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco, presentada por el titular del Centro directamente en el Registro General del mismo o en el de cualquiera de sus Delegaciones Territoriales, o por cualquiera de los medios previstos en el art. 38 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en la que se solicita la autorización de establecimiento y de desarrollo de las enseñanzas de que se trate.

3.– La autorización requerirá el previo informe del Ministerio de Asuntos Exteriores sobre la conveniencia de la misma basada en la existencia de Tratados o Convenios internacionales suscritos aplicables y, en su defecto, en el principio de reciprocidad.

4.– La concesión o denegación de la autorización requerirá el oportuno Informe razonado del órgano correspondiente del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

5.– La concesión o denegación de la autorización de establecimiento y funcionamiento se realizará por el Consejero de Educación, Universidades e Investigación, mediante Orden en la que se especificarán las condiciones en que se concede la misma, las obligaciones que asume el titular del Centro y los requisitos que, en todo caso, deberán concurrir en la oferta de las enseñanzas autorizadas.

6.– El expediente de autorización deberá ser resuelto y la correspondiente resolución notificada en un plazo máximo de seis meses desde la presentación de la solicitud.

7.– En todo caso, cuando en la solicitud no se contengan todos los documentos y datos requeridos en el presente Decreto para la autorización del establecimiento y funcionamiento, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación requerirá al titular o a la persona que en su nombre inició el procedimiento para que, en un plazo que nunca será inferior a diez días, proceda a subsanar las carencias de la solicitud, periodo en el que quedará suspendido el transcurso del plazo para resolución. En caso de que por parte del titular o persona que, en su nombre, inició el expediente no se procedan a subsanar las deficiencias señaladas, la autorización será denegada.

*3. artikulua.–* Baimena eskuratzeko betekizunak eta betekizun horien egiaztagiriak.

1.– Aurreko atalean aipatutako eskabidean, ezinbestean aurkeztu beharrekoa espedienteari hasiera emateko, ondoko datuak jasoko dira:

a) Ikastegia sustatzen duen pertsona fisiko edo juridikoaren identifikazioa.

b) Ikastegiaren izen zehatza.

c) Ikastegiaren helbidea eta, hala balegokio, ikasketak emango direneko egoitza bakoitzarena.

d) Baimena eskuratuz gero, eman nahi diren ikasketen zehaztapena.

2.– Eskabidearekin batera ondoko agiriak aurkeztu beharko dira:

a) Ikastegiaren sustatzaileen nortasunaren egiaztagiria, juridikoki frogatzeko moduan. Hala badagokio, erakunde sustatzailearen estatutuak eta ikastegia eratzeko eta dagozkion ikasketak emateko borondatea adierazten deneko erakunde horretako gobernu-organoaren erabakiaren egiaztagiria, eta erakundearen izenean diharduen pertsonak horretarako gaitua dagoela frogatzen duen agiria ere aurkeztu beharko dira.

b) Ikastegiaren antolamendu eta funtzionamenduari buruzko araudia. Araudi honek bat etorri beharko du konstituzioko printzipioekin, eta katedra-, ikasketa- eta ikerketa-askatasunen bidez gauzatzen den askatasun akademikoaren printzipioa bete beharko du, osoki eta modu eraginkorrean.

c) Ikastegiaren sustapenaren eta oinarritzat hartuko den hezkuntza-sistema darabilen unibertsitatearen arteko Hitzarmenaren egiaztagiria, edo sustatzaile honi ikasketa horiek emateko ahalmena ematen dion titulu juridikoaren egiaztagiria.

d) Euskal Autonomia Erkidegoan ikasketak eskaini nahi dituen ikastegia ikasketa horiek emateko oinarritzat hartzen duen hezkuntza-sistemaren jatorrizko herrialdeko legediarekin bat etorriz eratuta dagoela frogatzen duen egiaztagiria.

e) Euskal Autonomia Erkidegoan honelako ikasketak eskaini nahi dituen ikastegian ematen diren tituluak eta titulu horiek eskuratzeko beharrezko ikasketa-planak oinarritzat hartzen den hezkuntza-sistemaren jatorrizko herrialdean behar bezala onartzen direla frogatzen duen egiaztagiria.

f) Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako ikastegian emango diren ikasketek jatorrizko herrialdean erabateko baliozkotasuna dutela frogatzen duen egiaztagiria.

g) Ikastegia, hezkuntza-sistemari dagokionez, jatorrizko herrialdeko botere publikoei dagokien ikuskaritzaren mende gelditzen dela frogatzen duen egiaztagiria.

*Artículo 3.–* Requisitos para la autorización y documentación acreditativa de los mismos.

1.– La instancia de solicitud a que hace referencia el apartado anterior y que da inicio al expediente deberá contener los siguientes datos:

a) Identificación de la persona física o jurídica promotora del Centro.

b) Denominación específica del Centro.

c) Domicilio del Centro, así como, en su caso, de cada una de las sedes en que se vayan a desarrollar las enseñanzas.

d) Especificación de las enseñanzas que se pretendan impartir cuya autorización se solicita.

2.– La instancia de solicitud deberá ir acompañada de los siguientes documentos:

a) Acreditación, de forma jurídicamente fehaciente, de la personalidad de los promotores acompañada, en su caso, de los Estatutos de la Entidad promotora y de la certificación del acuerdo de su órgano de gobierno en el que se manifieste la voluntad de la misma de establecer el Centro y ofertar las enseñanzas, así como que la persona que actúa en su nombre está oportunamente habilitada para ello.

b) Normativa de Organización y Funcionamiento del Centro, que deberá ser conforme a los principios constitucionales y respetará, de forma plena y efectiva, el principio de libertad académica, que se manifiesta en las libertades de cátedra, de investigación y de estudio.

c) Acreditación del Convenio entre el promotor y la Universidad de acuerdo con cuyo sistema educativo se pretenden ofertar las enseñanzas, o del título jurídico que faculta a aquél para impartir las mismas.

d) Acreditación de que el Centro que pretende ofertar las enseñanzas en la Comunidad Autónoma del País Vasco está debidamente constituido con arreglo a la legislación del país conforme a cuyo sistema educativo pretende impartir las enseñanzas.

e) Acreditación de que los títulos y planes de estudios necesarios para obtenerlos en el Centro que pretende ofertar las enseñanzas en la Comunidad Autónoma del País Vasco están debidamente reconocidos en el país conforme a cuyo sistema educativo pretende impartir las enseñanzas.

f) Acreditación de que las enseñanzas a impartir en el Centro radicado en el País Vasco tendrán plena validez en el país de acuerdo con cuyo sistema educativo pretende impartir las enseñanzas.

g) Acreditación de que el Centro quedará sometido, por lo que a su sistema educativo se refiere, a la inspección de los correspondientes poderes públicos del país de acuerdo con cuyo sistema educativo pretende impartir las enseñanzas.

3.– Aurreko zenbakiko d) eta g) bitarteko idatz-zatietan jasotako betekizunak, biak barne, oinarritzat hartutako hezkuntza-sistemaren jatorrizko herriak Espainiako estatuan duen ordezkaritza ofizialak luzatutako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira.

4.– Era berean, ikastegiko titularrak, eman nahi dituen ikasketei buruzko justifikazio-memoria aurkeztu beharko du, eta ondokoak zehaztu beharko ditu bertan:

a) Emango diren ikasketak, ikasketa horiek zein kurtsotan hasiko diren ematen eta ikasketa horiek guztiz ezartzeko prozesua burutzeko egutegia.

b) Gehienez eskainiko den ikaspostuen kopurua, ikastegia jarduera osoan ari denean gehienez egongo den ikaspostuen kopurua, ikastegian ikasi ahal izateko finkatuko diren baldintzak eta, hala badagokio, ikasleen nazionalitatea.

c) Ikasketa hauek ezartzeko egokitasuna adierazten duten arrazoi akademikoak, profesionalak edo eskariari dagozkionak.

d) Titulazioa ezartzeko planaren arabera, ikastegian arituko diren irakasleen plantila, irakasle horien titulazioa eta ardura zehaztuz. Irakasle hauek ezin izango dute, inolaz ere, zerbitzu aktiboko egoera administratiboan dauden Unibertsitateko Irakasleen Kidegokoak izan.

e) Administrazio-langileen plantila, kategoriak eta prestakuntza zehaztuz.

f) Ikastegiak dituen instalazioen ezaugarri zehatzak eta instalazio horien planoak. Horrekin batera, emateko aurreikusitako titulazio, ikasle, irakasle eta irakasle ez diren gainerako langileen egokitzapena, eta eskaini nahi diren ikasketen ezaugarriak zehaztu beharko dira halaber memoria batean. Ikastegiaren titulartasun juridikoa zehaztu beharko da halaber eta, hala badagokio, titularrari ikastegiaren instalazioak erabiltzeko ahalmena ematen dion titulu juridikoa. Titulu juridikoa aurkeztuz gero, ikastegia jardunean dagoen bitartean instalazioak erabili ahal izateko bermea aurkeztu beharko da. Beste instalazio batzuetara aldatuz gero, Hezkuntza Sailak leku-aldaketa hori baimendu beharko du, instalazio berriak ikastegiak burutu beharreko jardueretarako egokiak direla ziurtatu ondoren, ikastegia eratzeko baimendutako baldintzetan betiere.

g) Ikasketak emateko oinarritzat hartuko diren ikasketa-planak eta plan horien justifikazio-memoria.

5.– Era berean, eskaini nahi diren titulazioa edo titulazioak ematen diren aldirako aurreikusitako diru-sarrera eta gastuen aurrekontua aurkeztu beharko da, aurreikusitako finantziazio-iturriak, eta proiektuaren bideragarritasun finantzarioa ahalbidetzen duten oinarrizko azterketa ekonomikoak zehaztuz. Horrekin batera, ikasketa-beka eta -laguntzatarako bereizitako portzentaia ere zehaztu beharko da, hala badagokio, baldin eta

3.– Los requisitos contenidos en las letras d) a g), ambas inclusive, del número anterior se acreditarán mediante certificación expedida al efecto por la representación acreditada en España del país conforme a cuyo sistema educativo se hayan de impartir las enseñanzas.

4.– Asimismo, el titular del Centro deberá presentar Memoria justificativa de las enseñanzas cuya autorización solicita, que deberá precisar:

a) Las enseñanzas a impartir, con especificación del curso académico en que se pretenda iniciar su implantación y calendario del proceso de implantación total de las mismas.

b) Número máximo de plazas escolares que se vayan a ofertar, con especificación del número máximo de plazas en el momento de pleno desarrollo, así como especificación de los requisitos de acceso que vayan a tener vigencia en el Centro, con especificación, en su caso, de la nacionalidad de los alumnos.

c) Razones académicas, profesionales y de demanda que aconsejen la implantación de los estudios.

d) Plantilla de profesorado de acuerdo con el plan de implantación de la titulación, con especificación de las características de titulación y dedicación de los mismos, que, en ningún caso, podrán ser personas pertenecientes a los Cuerpos Docentes Universitarios en situación administrativa de servicio activo.

e) Plantilla de personal administrativo, con especificación de categorías y cualificación.

f) Características detalladas de las instalaciones con que cuenta el Centro, que deberá ir acompañada de los correspondientes planos de las mismas y de la Memoria explicativa de su adecuación a las previsiones de titulaciones, alumnado y personal docente y no docente previsto, así como a las características de las enseñanzas a ofertar. Se deberá especificar la titularidad jurídica, así como, en su caso, el título jurídico que justifique su utilización por el titular del Centro, en cuyo caso deberá aportar garantía de su mantenimiento mientras el Centro mantenga sus actividades. En el supuesto de cambio de instalaciones, el Departamento de Educación deberá autorizar el traslado, garantizando la adecuación de las mismas al desarrollo de las actividades propias del Centro de acuerdo con la autorización de establecimiento.

g) Planes de estudio de acuerdo con los que se van a impartir las enseñanzas, así como Memoria justificativa de los mismos.

5.– Igualmente, deberá aportar las previsiones de Presupuestos de ingresos y gastos durante el periodo de implantación de la titulación o titulaciones que pretenda ofertar, con especificación de las fuentes de financiación previstas, así como los estudios económicos básicos que aseguren la viabilidad financiera del proyecto, incluyendo, en su caso, un porcentaje destinado a becas y ayudas al estudio, en las que se tendrán en cuen-

beka eta laguntza horiek emateko, ikasleen emaitza akademikoak ezezik, haien baldintza sozioekonomikoak ere aintzakotzat hartzen badira. Horretarako, ikastegirako aurreikusitako finantzaketa ekonomikoa ziurtatzen duten berme finantzarioak aurkeztu beharko dira, abal, ondare-berme, hipoteka-berme edo bestelako bermeen bidez.

*4. artikulua.–* Ikastegiari unibertsitateko ikasketak emateko ahalmena ematen dion hitzarmena edo titulu juridikoa.

1.– Baimena eskatzen duen ikastegiaren eta, ikasketak ematerakoan, oinarritzat hartzen den hezkuntza-sistema darabilen atzerriko unibertsitatearen arteko hitzarmenean, edo ikastegiari ikasketa horiek emateko ahalmena ematen dion titulu juridikoan, ondoko zehaztapenak jasoko dira, ikasketa horien maila egokia bermatzearren:

a) Ikasle-kopuruaren arabera egongo den irakasle-kopuru osoa, eta irakasle hauen prestakuntza akademikoa, titulazio bakoitzaren maila eta, hala badagokio, bakoitzaren ardura zehaztuz.

b) Ikastegian diharduten irakasleen eta ikasleen kopuruaren arabera, behar izango diren administrazioko langileak.

c) Ikasketak emateko erabiliko diren instalazioen ezaugarriak eta azalera, ikasle-kopuruaren arabera.

d) Irakaskuntzarako erabiliko diren liburutegiaren eta laborategien ezaugarriak eta zuzkidura, eta, hala badagokio, ikastegia osatzen duen hezkuntz-komunitatearen gainerako zerbitzuenak ere bai.

2.– Instalazioen ezaugarriek beren baitan hartuko dituzten irakaskuntza-jarduerak burutu ahal izateko behar diren baldintza egokiak bete beharko dituzte betiere.

*5. artikulua.–* Beste herrialde batzuetan indarrean dauden hezkuntza-sistemen araberako unibertsitateko ikasketak ematen dituzten ikastegien erregistroa.

1.– Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean, beste herrialde batzuetan indarrean dauden hezkuntza-sistemen araberako unibertsitateko ikasketak ematen dituzten ikastegien erregistro bat sortuko da, eta berau Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetzaren menpeko Unibertsitate Zuzendaritzari atxikia egongo da.

2.– Erregistro horretan, aurreko zenbakian aipatutako ikastegiak inskribatuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuan eratu eta jarduteko baimena jaso ondoren.

3.– Erregistro horretan idazpen bat egingo da Euskal Autonomia Erkidegoan eratu eta jarduteko baimena jaso duen ikastegi bakoitzeko. Idazpen horretan ondoko datuak jasoko dira: ikastegiaren izena, egoitza, ikastegi horren titularra den pertsona edo erakundea-

ta no sólo los requisitos académicos de los alumnos sino también sus condiciones socioeconómicas. Se deberán aportar, a estos efectos, las garantías financieras que aseguren la financiación económica prevista para el Centro, a través de avales, garantías patrimoniales, hipotecarias o de cualquier otro tipo.

*Artículo 4.–* El Convenio o título jurídico que acredita al Centro para impartir las enseñanzas universitarias.

1.– El Convenio entre el Centro que solicita la autorización y la Universidad extranjera de acuerdo a cuyo sistema educativo se van a impartir las enseñanzas, o el título jurídico que de otro modo acredite al Centro para impartir las mismas, a los efectos de garantizar la calidad académica de las enseñanzas a ofertar, deberá contener, necesariamente:

a) El número total de personal docente en relación con el número de alumnos, así como su cualificación académica de acuerdo con el nivel de cada titulación y, en su caso, dedicación.

b) Personal administrativo requerido en relación con el número de profesores y alumnos que se incorporen al Centro.

c) Características y superficies requeridas en las instalaciones docentes en relación con el número de alumnos.

d) Características de las instalaciones y dotaciones de los servicios de Biblioteca y Laboratorios docentes, así como, en su caso, de otros servicios a la comunidad educativa del Centro.

2.– En todo caso, las instalaciones deberán tener unas características que permitan, en condiciones suficientemente adecuadas, el desarrollo de las actividades académicas a las que están destinadas.

*Artículo 5.–* Registro de Centros que imparten enseñanzas de nivel universitario de acuerdo a sistemas educativos vigentes en otros países.

1.– En el Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco se creará un Registro de Centros que imparten enseñanzas de nivel universitario de acuerdo a sistemas educativos vigentes en otros países, que quedará adscrito a la Dirección de Universidades, dependiente de la Viceconsejería de Universidades e Investigación.

2.– El Registro tendrá como objeto la inscripción de los Centros a los que se refiere el número anterior que hayan sido objeto de autorización para su establecimiento y funcionamiento en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

3.– El Registro constará de un asiento para cada uno de los Centros cuyo establecimiento y funcionamiento en la Comunidad Autónoma del País Vasco haya sido objeto de autorización. En el asiento deberá constar el nombre del Centro, su sede, el nombre de la persona o

ren izena, baimendutako ikasketak, ikasketa horiek indarrean dauden herrialdeen izena, eta ikasketa horiek emateko oinarritzat hartzen den hezkuntza-sistema darabilten ikastegiaren edo ikastegien izena. Honekin batera, ikastegi horiek eratu eta jarduteko baimenean jasotzen diren bestelako baldintza guztiak ere erregistro honetan zehaztu beharko dira. Baimenaren oinarrizko baldintzetan egiten diren aldaketa guztiak ere bertan jasoko dira.

4.– Erregistroa publikoa izango da. Publikotasuna idazpenen edukia jasotzen duen ziurtagirien bidez gauzatuko da, eta horretarako, informazio-oharpen sinple bat edo emandako informazioaren egiazkotasuna ziurtatzen duen bestelako agiriren bat luzatuko da.

5.– Beste herrialde batzuetan indarrean dauden sistemen araberako unibertsitateko ikasketak ematen dituen ikastegi bat eratu eta jarduteko baimena, eta, hala badagokio, baimen horren baliogabetzea edo jarduerak bertan behera utzi izana erregistroan inskribatu ondoren, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak horren berri emango dio Hezkuntza eta Zientzia Ministerioari. Era berean, baimenean jasotako titulazioak emateko oinarrizko baldintzetan eragina duten aldaketa oro jakinaraziko dio.

*6. artikulua.–* Ikuskapena eta kontrola.

1.– Beste herrialde batzuetan indarrean dauden hezkuntza-sistemak oinarritzat hartuta, Espainiako estatuko tituluekin homologatu ezineko titulazioak lortzera bideratutako unibertsitate-mailako ikasketak emateko Euskal Autonomia Erkidegoan eratu eta jarduteko baimena jaso duten ikastegiak jatorrizko herrialde horietako hezkuntza-agintaritzaren kontrolpean egongo dira, baimendutako baldintzak betetzeari eta burutzen dituzten jardueren garapenari dagokien alor guztietan. Horregatik, agintaritza horiek nahi dutenean ikuskatu ahal izango dituzte ikastegi hauek jardunean dauden bitartean, eta ikastegi hauek behartuta egongo dira baimendutako baldintzei buruz zein burutzen dituzten jardueren garapenari buruz eskatzen zaizkien datu eta agiri guztiak agintaritza horien esku uztera.

2.– Ikuskaritzaren ondorioz, baimena eskuratzeko eskatutako betekizunen bat edo titularrak bere gain hartutako konpromisoren bat betetzen ez dela frogatuko balitz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hautemandako okerrak edo hutsuneak zuzentzeko eskatu ahal izango luke, eta epe bat finkatu ahal izango luke zuzenketa horiek egiteko.

*7. artikulua.–* Baimena baliogabetzea.

1.– Ikasketak emateko baimena baliogabetu egin ahal izango luke baimen hori eman duen agintaritzak, baldin eta, ikastetxearen titularrari leporatzekoa den kausaren baten ondorioz, baimen hori emateko eskatutako betekizunak beteko ez balira.

entidad titular del mismo, las enseñanzas cuya oferta se autoriza, así como los países en los que las mismas tienen validez y el Centro o Centros universitarios de aquellos de acuerdo con cuyo sistema educativo se imparten éstas. Asimismo, será objeto de especificación cualquier otra condición esencial de establecimiento y funcionamiento que figure en la autorización. Se inscribirán, asimismo, todas las modificaciones que se produzcan en las condiciones esenciales de la autorización.

4.– El Registro será público. La publicidad se llevará a cabo a través de certificación del contenido de los asientos, mediante simple nota informativa o mediante cualquier otro medio que sea suficiente y garantice la veracidad de la información aportada.

5.– Una vez inscrita en el Registro la autorización de establecimiento y funcionamiento de un Centro que imparte enseñanzas de nivel universitario de acuerdo a sistemas vigentes en otros países, así como, en su caso, su revocación o el cese de actividades, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación lo pondrá en conocimiento del Ministerio de Educación y Ciencia. Del mismo modo, pondrá en conocimiento de éste cualquier modificación en la autorización que afecte a las condiciones fundamentales de impartición de las titulaciones objeto de aquélla.

*Artículo 6.–* Inspección y control.

1.– Los Centros cuyo establecimiento y funcionamiento en la Comunidad Autónoma haya sido autorizado para ofertar enseñanzas de nivel universitario de acuerdo a sistemas educativos vigentes en otros países, no conducentes a la obtención de títulos homologables a los españoles, quedarán sujetos al control de las autoridades educativas de la misma en todo lo que se refiere al cumplimiento de las condiciones de la autorización y al desarrollo de sus actividades. Por ello, podrán ser inspeccionados por éstas en cualquier momento durante su funcionamiento, estando obligados a poner a disposición de las mismas cuantos datos y documentos relativos a las condiciones de la autorización, así como al desarrollo de sus actividades les sean requeridos.

2.– Cuando, a través de la actividad de inspección, se ponga de manifiesto el incumplimiento de alguno de los requisitos necesarios para la concesión de la autorización o de alguno de los compromisos asumidos por el titular, el Departamento de Educación, Universidades e investigación podrá requerir a aquél para que subsane las deficiencias o incumplimientos detectados, pudiendo concederle un plazo para ello.

*Artículo 7.–* Revocación de la autorización.

1.– La autorización podrá ser revocada por la misma autoridad que la concedió en los supuestos de incumplimiento de las condiciones exigidas para su concesión, siempre que lo sea por causa imputable al titular del Centro.

2.– Baimena baliogabetu aurretik, dagokion espedientea irekiko da, eta ikastegiko titularrari esateko dituenak aditzera emateko aukera emango zaio. Dena den, baimena eskuratzeko beharrezko baldintzaren bat betetzen ez dela frogatuko balitz, eta ikastegi titularrari okerrak zuzentzeko eskatu ondoren, ez betetze horrek bere horretan jarraituko balu, baimen hori baliogabetu egingo litzateke orduan. Era berean, baimena emateko eskatutako baldintzetakoren bat behin eta berriz beteko ez balitz, orduan ere baliogabetu egin ahal izango litzateke emandako baimena.

*8. artikulua.–* Jarduerak bertan behera uztea.

Ikastegiak bere borondatez bere jarduna bertan behera utzi nahi izanez gero, eratu eta jardun ahal izateko eskatu behar izan duenaren antzeko baimena eskatu beharko du. Nolanahi ere, ikastegiaren jarduerak bertan behera uzteko baimena ematen denean, ikastegi horretan ikasketak burutzen ari diren ikasleei, ikasketak ohiko moduan burututa, ikasketa horiek amaitu arte jarraitzeko aukera eman beharko zaie.

*9. artikulua.–* Ikastegien eta ikasketen izendapena.

1.– Dekretu honetan aipatzen diren ikastegiek ezin izango dituzte hartu unibertsitateko auziei buruzko legediak gure unibertsitate-sisteman indarrean dauden titulazio ofizialetarako erabiltzen dituen izendapenak.

2.– Dekretu honetan jasotako ikastegietan emango diren ikasketak, oinarritzat hartutako hezkuntza-sistema darabilen unibertsitateko edo unibertsitateetako titulazioekin bat datorrena izango da, eta sistema hori berariaz adierazi beharko da baimen-eskabidean.

3.– Aurreko idatz-zatian aipatutako ikasketei ezin izango zaie, inolaz ere, gure unibertsitate-sisteman indarrean dauden titulu ofizialekin bat datozen izenak edo titulu ofizial hauetakoren batekin nahasgarriak izan litezkeen izenak eman, ezta itzulpen bidez dagozkienak ere, horren berri berariaz ematen ez bada behintzat.

*10. artikulua.–* Ikasketen homologazioa.

Dekretu honetan aipatutako ikastegiak eratu eta jardun ahal izateko baimenak ez du, berez, ikastegi horietan ematen diren ikasketak Espainiako estatuan automatikoki homologatzeko eskubiderik ematen, eta homologazio hori goi-mailako hezkuntzako atzerriko titulazioen homologazioari buruzko araudi orokorrak dioenaren arabera erabakiko da.

XEDAPEN IRAGANKORRA

1.– Dekretu hau indarrean sartu aurretik baimena eskatu duten ikastegiak baimentzeko espedienteak, dekretua indarrean sartu eta lau hilabeteko epean ebatzi-

2.– La revocación, previo el oportuno expediente, en el que se dará audiencia al titular del Centro, procederá en los supuestos en que, puesto de manifiesto cualquier incumplimiento de las condiciones necesarias para la concesión de la autorización y requerido el titular del Centro para que lo subsane, persista la situación de incumplimiento. De la misma forma, podrá proceder la revocación cuando se produzcan, de forma reiterada, incumplimientos de cualquiera de las condiciones exigidas para la autorización.

*Artículo 8.–* Cese de actividades.

El cese voluntario en las actividades por parte del Centro requerirá autorización en términos similares a los señalados para su establecimiento y funcionamiento, siendo requisito necesario la continuación de las actividades durante el periodo mínimo que permita finalizar sus estudios a los alumnos que, con el aprovechamiento académico normal en el mismo, los estén realizando en aquél en el momento en que se autorice su finalización.

*Artículo 9.–* Denominación de los Centros y de las enseñanzas.

1.– Los Centros a que se refiere el presente Decreto no podrán adoptar ninguna de las denominaciones que la legislación en materia universitaria reserva para los Centros que oferten cualquiera de las titulaciones oficiales vigentes en nuestro sistema universitario.

2.– Las enseñanzas a impartir en los Centros a que se refiere el presente Decreto serán las que correspondan con la de la titulación de la Universidad o Universidades de acuerdo con cuyo sistema educativo se vayan a impartir, forma en la que deberán constar expresamente en la solicitud de autorización.

3.– Las enseñanzas referidas en el apartado anterior no podrán adoptar, en ningún caso, ninguna denominación que coincida con las de los correspondientes títulos oficiales vigentes en nuestro sistema universitario, o que se asemejen a ellas de forma que pueda inducir a su identificación con alguna de aquellas, ni tan siquiera como correspondencia en vía de traducción, salvo que se especifique esta circunstancia.

*Artículo 10.–* Homologación de las enseñanzas.

La autorización para el establecimiento y funcionamiento de los Centros a que se refiere el presente Decreto no conllevará, por sí misma, el derecho a homologación automática en España de los estudios que se impartan en dichos Centros, que quedará sometida a lo dispuesto en la normativa general sobre homologación de títulos extranjeros de educación superior.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

1.– Los expedientes de autorización de los Centros que, con anterioridad a la entrada en vigor del presente Decreto hayan solicitado formalmente aquélla, serán

ko dira, dekretu honetako 2. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

2.– Baimena eskatzean aurkeztutako dokumentazioan Dekretu honetan eskatutako agiri guztiak jasoko ez balira, edo agiri horiek Dekretuan adierazitako baldintzak beteko ez balituzte, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikastegiko titularrarengana joko luke hutsune hori zuzendu dezan, dekretu honetako 2.7. artikuluan aurreikusitako baldintzetan eta ondorioekin.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1999ko irailaren 21ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

resueltos en el plazo de cuatro meses desde la entrada en vigor de éste, en los términos previstos en el artículo 2 del presente Decreto.

2.– En el supuesto de que la documentación aportada al solicitar la autorización no incluyese la totalidad de los documentos exigidos en el presente Decreto, o no los incluyese en las condiciones en él establecidas, por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación se instará del titular del Centro para que sea subsanada, en los términos y con los efectos previstos en el artículo 2.7 del presente Decreto.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 21 de septiembre de 1999.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

## KULTURA SAILA

## Zk-4173

343/1999, DEKRETUA, urriaren 5ekoa, Euskararen Aholku Batzordea eraldatzeko Dekretuaren laugarren aldaketa egiteko dena.

Euskararen Aholku Batzordea eraldatu eta osakera berria emateko ekainaren 18ko 156/1996 Dekretuaren bitartez hasitako bidean, garrantzizkotzat jo da euskararen erabileraren normalkuntzan diharduten lagunen harremanetarako eta parte hartzeko organo moduan eratzea Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoa.

Hori horrela, komenigarri iritzi zaio hizkuntza-normalkuntzaren arlo desberdinetan diharduten pertsona ezagunen kopurua areagotzeari, dauden beharrei egoki erantzun ahal izateko.

Bestalde, Batzorde Osoko kideen izendapena Kultura sailburuaren Agindu bidez egingo da; ez da prozedura hori erabiliko Batzorde Osoan duten karguagatik dauden kideen kasuan. Gainera, kideak batzar guztietan izango direla bermatzeari begira, hainbat organok, erakundek eta entitatek ordezkoak izendatzeko aukera ezarri da.

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

## N°-4173

DECRETO 343/1999, de 5 de octubre, de cuarta modificación del Decreto de transformación del Consejo Asesor del Euskera.

En el proceso de transformación y nueva configuración del Consejo Asesor del Euskera, iniciado con el Decreto 156/1996, de 18 de junio, se ha revelado la importancia de constituir el Pleno en un órgano de encuentro y participación de cuantos sujetos participan en la labor de normalización del uso del euskera.

En tal sentido, se ha revelado la conveniencia de ampliar el número máximo de vocalías correspondientes a personalidades implicadas en los diferentes ámbitos sectoriales de normalización lingüística, elevándolo hasta una cifra, que permitirá atender las necesidades al efecto.

Por otra parte, en cuanto a los miembros del Consejo, será mediante Orden de la Consejera de Cultura como se efectuará el nombramiento efectivo de los representantes no llamados por su cargo, y además a fin de garantizar la efectiva presencia en todas las sesiones, se ha incluido la posibilidad de que ciertos órganos, Instituciones y Entidades, puedan designar suplentes.